



KOKAPENA

DEBA

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

DEBAKO UDALA

DENBORA-ERREFERENTZIA

2008-2009

EKINTZA

Debako udalerriko natur eta kultur ondareak herriko gazteei ezagutzera eman.

LORPEN NAGUSIAK

Herriko gazteen interesa bermatzea herriko ondareak ezagutzeko eta babesteko.

ZAILTASUNA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

1

GIZARTE ERAGINA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

3

DATU INTERESGARRIAK

Deskribapena

Herri bateko natur eta kultur ondarea babesteko beharrezko da herritarren partaidetza eta sentsibilizazio eta ezinbestekoa, herriko gazteek balio hauek ezagutzea, ulertzea eta gordetzea. Horregatik, programa honen helburuak hauek izan dira:

- Interes natural, historiko eta etnografikoa duten Debako ondare eta guneak ezagutzera eman herriko gazteen artean eta hauen perspektiba soziala hobetzea.
- Debak dituen ekosistema desberdinak (Deba ibaiko itsaspadurak, Deba-Zumaia arteko itsalabarra, Karst mendigunea, ...) eta beraien biodibertsitatea ezagutzera eman eta duten balioa azaltzea.
- Parte hartze zuzenaren bidez, ingurumen heziketa eta kontzientziazioa bultzatu gazteen artean.
- Herritarren eta konkretuki gazteen artean jarrera onak sustatzea.
- Herritarrei, landa ingurua eta bertako ohitura eta bizimodua helaraztea.

Guzti honetarako, 15-16 urteko gazteei zuzendutako ekintza ezberdinak antolatu ziren. Partaidetza sustatu nahirik, ekintza guztiak eskolatik kanpo antolatu ziren, eskola bukatu ondoren, oporretako egunetan edo larunbatetan, non faktore ludikoak eta ingurumen hezkuntza konbinatu zirelarik.

Honela, ingurumena ezagutu duten heinean, haren egoera ere aztertu eta salatu dute eta beraiek ulertzeaz gain, urte bukaeran, herritarrei aztertu eta ikasitakoaren inguruan erakusketa bat antolatu zuten.

Hauek izan dira burutu dituzten jarduerak:

- Zuhaitz eguna: otsailak 23. 12 lagun. 6 motatako zuhaitzak landatu, herritik gertu dagoen naturgunean (casacampo)
- Lasturrera Irteera: martxoaren 17 eta 18an. 25 gazte. Inguruko baserriak bisitatu, gau txoriak, ginkana, landareak ezagutu
- Sasiolara irteera. Uztailaren 22 eta 23an. 13 gazte. Arkeologia esperimentalak, ugaztunen oinatzak, tirolina, Praileatzeko kobaren sarrera bisitatu, Sasiolako komentua,...
- Sakonetara irteera: uztailaren 28-30ean. 14 gazte. Lapari eta Mendata hondartzen arteko itsaslabarra ikasi, sakonetako hondartza edo kala garbitu, gaubela, akelarre,...
- Elikagaien eraldaketa: urriaren 18an. 12 gazte. Txindurri-turri baserrian sagarrak bildu eta hauek sagardoa egiteko prestatu,...
- Sentsibilizazio kanpaina: abendua. Herritarrei erakutsi, Erakusketa baten bidez, zer ikusi duten eta herriko natur guneen egoera salatuz, eta hau saihesteko proposamenak egin.

Lorpenak:

- Partaidetza oso altua. Proiektuan 62 gaztek (15 eta 16 urte bitartekoak) eman zuten izena, hau da udalerriko gazteen %64ak eta Deba herriko %83ak.
- Gazteek, herriko ondarearen balioa ulertzea eta hauen babesa sustatzea.

Harremanetarako:

Debako Udala

Agenda 21 Teknikaria - Idoia Alvarez

Telefonoa: 943.192.840

Emaila: hondartza@deba.net

Lotura interesgarriak:

Egunkarietan argitaratutako berriak:

<http://www.diariovasco.com/20080224/bajo-deba/gazte-natura-proiektuak-arrakasta-20080224.html>

<http://www2.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2008/03/18/vecinos/debabarrena/d18deb37.963348.php>